

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Barkos Lehendakariak Gobernuaren babes eman die bi Nafarroak batzen dituen ekimen guztiei

Mugaren bi aldeetako ordezkari instituzional eta sozialak Zangozan bildu dira hitzordu horren hamaikagarren edizioan

Martes, 27 de octubre de 2015

Bi Nafarroen Mintegiko hamaikagarren edizioa hartu du gaur goizean Zangozak. Bertan, Uxue Barkos Lehendakariak gaurko hitzordua "bi lurraldetako ordezkari instituzional eta sozialetako ordezkarien arteko adiskidetasun eta kulturaren topagunetzat" jo du, eta "denbora luzean estatu beraren barnean izan zirenak, Nafarroako Erreinuaren barnean, hain zuzen"; halaber, Nafarroako Gobernuak bi lurraldeak batzen dituen ekimen guztiak babestuko dituela iragarri du.



Mintegian parte hartutakoak, taldeko argazkian.

Topaketa hiriko alkate Angel Navallasek ongietorria emateko esandako hitz batzuekin hasi da eta, haren atzetik, Nafarroako historia nahiz kulturari lotutako gai batzuei buruzko zenbait hitzaldi egin dira, ekitaldi instituzionalaren aurretik. Ekitaldi horretan parte hartu dute: Zangozako alkateak; Nafarroa Zaharreko Adiskideen Elkarteko lehendakari Louis Gentien-ek; Donibane Garaziko alkate Alphonse Idiart-ek eta Barkos Lehendakariak.

Bere [agerraldian](#), Uxue Barkosek adierazi du ere, "elkarrekin egindako truke eta azterketarako foro hau Nafarroako Gobernuak gaur egun duen interesa adierazteko toki egokia dela, hau da, Nafarroa bateko eta besteko biztanleak batzen gaituzten loturak estutzeko, eta maila guztietan proiektu berri, egonkor nahiz interesgarriak ekiteko; ez maila historiko eta kulturalean soilik, baita enpresa, gizarte eta herritarren mailan ere, erakundeen presentziarekin eta ahal den laguntza ekonomikoa emanez gure bi lurraldeetako herri nahiz hirietatik elkarrekin sortutako ekimenei".

Uxue Barkosek esan duenez, "gure lurren artean denbora luzean izandako banantze eta ezagutza eza ere, azken hamarkadetan hautsi egin da herritarrek emandako bultzadari esker eta muga arteko zenbait proiektu ezartzeari esker, Pirinioetako Lan Elkarteko POCTEFA programan

sartutakoak, esaterako. Benetan uste dut historikoki eta kulturalki batzen gaituzten lotura estuak, gure hizkuntza komunarekiko, euskararekiko sentitzen dugunak eta esperientzia berriekin elkarrekin aurrera egiteko gure borondatea aukera ezin hobeak direla, haztegi bikaina direla elkarrekiko ezagutza areagotzeko eta gure harreman instituzional, sozial eta herritarra finkatzeko gure ekimenei ekiteko".

Iragan ostiralean Akitaniako lehendakariarekin izandako bilkura gogora ekarri ondoren (eskerrak eman zizkion Nafarroako Gobernuak Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera euroeskualdean berriz sartzeko eskaerari harrera ona egiteagatik), Barkos Lehendakariak Zangozaren jarrera ireki eta abegitsua goraiatu ditu, eta hiriko alkateari eskerrak eman dizkio, "bilkura hau hartzeko erakutsitako interesagatik, aurten hiri modura izendatu zutenetik hiru mende eta erdi betetzen diren urte honetan, eta ekitaldi hau ospatzeko emandako laguntza guztiagatik".

Gur goizeko hitzaldietan, Paul Mironneau-k Pau-ko jauregiari eta bere historiari buruz hitz egin du, eta 2017. urterako aurreikusitako erakusketa-proiektuari buruz. Claude Menges-Mironneau-k eta Mano Curutcharry-k, berriz, zenbait monumentu aurkeztu dituzte, eta Pirinio Atlantikoetako Departamentuko antzinako gauzak eta objektu artistikoak kontserbatzeaz hitz egin dute. Azkenik, Susana Herrerosek "Zangoza-Ultraportuak. Joan-etorriko bide baten istorioak" izeneko hitzaldia eman du.

Jardunaldia Zangozako parte zaharrera egindako bisita batekin amaitu da, eta Vallesantoro Jauregiko kultur etxean eskainitako aperitiboarekin.



Barkos Lehendakaria bertaratutako guztiei hitz egiten.

Galería de fotos



Mintegira bertaratutakoak.



Ollo kontseilaria eta Zangozako alkatea.